

In memoriam: Iñaki Zubizarreta Mujika «Xubi», Kaxildo Alkorta eta Josemari Navascués Baskaran

TXILIKU ARANGUREN ETA BEATRIZ ZABALONDO

MAITE IMAZ

KARLOS DEL OLMO

Hiru bazkide joan dira iazko alea argitaratu genuenetik: Iñaki Zubizarreta Mujika «Xubi», Kaxildo Alkorta eta Josemari Navascués Baskaran. Bihoakie gure esker ona eta gorazarrea gure lanbidea maitatu eta duindu zuten hiru kideoi.

Iñaki Zubizarreta Mujika «Xubi» (1947-2021)

Euskaltzale azpeitiarra kultura idatzi oparoz jantzia zen. Haren hitzetan esanda: «Hamar urteko belartxabala ni, jakin-mindua, komentu-ikastetxeetako giro isilean dena ikasteko irrikaz. Hamaika urtean humanitatez, filosofiaz eta teologiaz blai. Kultura grekoa eta latina, neoklasikoa, erromantikoa, modernoa eta postmodernoa buruan».

EIZIEk jaso du haren biografia¹ bat, eta handik dakigu, komentuko hamaika urteen ondoren, irten 1969an, eta izan zela irratia esataria, idazlea, itzultzailea, irakaslea,

zuzentzailea, editorea eta abar. Baina batez ere bertsolaritzak liluratu zuen, ahozkotanaren aberastasunak. Txunditzen zuen «Manuel Olaizola *Uztapideren* eta Manuel Lasarteren iturriek nola zerien bertsoak, oztoporik gabe, estilo idatzi landuaren korapilorik gabe». Oso maitea zuen Lasarte bertsolari handia: «Eskolarik ez, eta hitz lauz bere kontalari senak eramanda, eta bertso idatzietan belarri finak, iturriari ura bezala dario bertsoa, eta hitza. Soziologia, etnografia, psikologia, meteorologia, hizkuntzalari-tza, bertsolaritza, erlijioa, herri literatura, herri kirolak, etika eta beste zenbait jakintza

1. <http://nordanor.eus/nor?id=199>

arlotan adituek altxor zoragarria daukate Manuelen idatzi eta bertsoetan».

Orpoz orpo jardun zuen harekin lanean. Bi artikulu idatzi zizkion, bata *Argia* aldizkarian eta bestea *Egunan*, eta, *Manuel Lasarte Iturria ondare* (Auspoa, 2008) liburua idazteaz gain, hiztegitxo bat ondu zuen haren azken atalean, hala nola *Hizkuntza I* (hiztegia adibidez edo argibidez janzteko) eta *Esapideak* eta *Hizkuntza II* (herri jakin-duria; esaera zahar moldatuak edo esaera berriak zahar bihurtzeko modukoak). Hiru atal horietan jasota dauzka Manuel Lasarteren altxorretik, harribitxiak nola, banakabanaka apartatutako aleak.

Ahokotasunaren haritik eta hizkuntza biziaren garrantziari dagokionez, Xubik argi zeukan euskara biziberritzeko, euskararen erabilera sustatzeko, hedabideek dutela lehentasuna eta, literaturako ondarea bezala, filmetako ondare bat ere badaukagula: «Nik, ondarearen kontuan, bere garaian Koldo Mitxelenak prosagatik esaten zuena esaten dut. Orduan literatura itzultzeari zegokionean idazle gazteek esaten zuten euskal prosa ez zegoela landuta eta Mitxelenak esaten zuen baietz, oso ondo landuta zegoela; jakina, ikasi egin behar zela. Orduan esaten zen: “Ez dago, ez dago...”. Eta Mitxelenak: “Bai, badago, badago! Ikasi egin behar da».

ETBren sorreratik beretik hasi zen lanean bikoizketaren arloan Xubi, lehen emanalditik (1982ko Urtezahar gauean) berehala, 1983ko otsailaren 1ean: Eresoin-

kan lehenengo, Irusoinen gero eta Mixerren azkenik, etxe batean dena. Baina, aurretik, eskolak ematen ibili zen irakurtzen-eta erakusteko, bai irratirako, bai telebistarako, Prim kaleko ikastaroetan. Hasieran, dokumentalen bati boza jarri zion, baina, bestela, beti zuzentzaile lanean jardun zuen, erretiratzeko adina heldu zitzaion arte.

2006an, EIZIEK eta HUIHEZI fakultateak (MU) antolatuta, ikus-entzunezkoen itzulpengintzari buruzko jardunaldi batean parte hartu zuen; maisuki aritu zen entzuleen aurrean, eta han esandakoak idatzita utzi zituen, *Senezen* 34. zenbakian.² Prentsan ere eman zuen iritzia, bikoizketaz eta: «Euskara eta bikoizketa»³ (*Berria*, 2012-08-03).

Oso berea zuen hizkuntzaren ardurua Xubik, eta miatzen zizkion zoko guztiak, ezkutuan dauzkan aberastasunen bila. Hala, Lasarterekin egin zuen moduan, baditu perla sorta gehiago ere, hiztegieta jasota ez daudenak, ikus-entzunezkoetan zuzentzaile ibili zen urteetan itzultzaile-egokitzaileei jasotako hitz eta esaldiekin berak osatutakoak: *Hiztegia I* (euskara-euskara), *Hiztegia II* (gaztelania-euskara) eta *Hiztegia III* (aldaketak).⁴ Azken hiru lanok ez daukate argitalpen formalik eta ezin dira inongo liburu dendatan topatu, baina Xubik berak banatu zizkien itzultzaile-egokitzaileei, eta arduratu zen ETBra eta zenbait erakundetara bidaltzeaz. Ez dira hiztegiak aipatu eta burura datozkigun obra mardul potoloak, ez, baina urte askoko eskarmentua biltzen dute.

2. <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20080222/xubi>

3. <https://www.berria.eus/paperekoa/1513/005/001/2012-08-03/euskara-eta-bikoizketa.htm>

4. https://eizie.eus/eu/argitalpenak/xubi_hiztegiak.pdf

Giza xuxurlak liburuxkan bildu zituen barne-barneko «gogoeta, loretxo eta poemak, bihotzaren espazioan sortu eta hitzez adierazten zailak».

Errekastotik errekarra, emari etengabe-koan xuxurlari nekazina izan zen Xubi.

Txiliku Aranguren
eta Beatriz Zabalondo

Kaxildo Alkorta (1943-2021)

EIZIEko kidea elkarte sortu zenetik, 2021eko urriaren 10ean zendu zen Kaxildo Alkorta. Elkarte sortu berria zenean, lehenengo zuzendaritzako kide izan zen, 1988tik 1993ra bitartean.

Getarian (Gipuzkoa) jaioa, 1943ko apirilaren 3an, herriko eskolara joan zen hamar urtera arte; Kaxildoren ama, Josefa, maistra zen bertan. Donostian Batxilergorako *ingresoko* azterketa egin zuen eta Xabierrera (Nafarroa) joan zen, jesuitek zeukaten seminario moduko batera, Batxilergoa ikastera. *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian idatzi zuen azkeneko pasadizoan (113. alea, 2021eko uztaila) kontatzen dizkigu azterketa horren zer-nolakoak.

Hamasei urterekin, unibertsitate aurreko ikasturtea (PREU) egitera joan zen Donostiara, eta, hamazazpirekin, Jesusen Lagundian sartzea erabaki zuen. Hiru urte egin zituen Veruelan (Zaragoza) *nobiziadoa* egiten, bat Salamancan *junioradoa* egiten, hiru Loiolan Filosofia ikasten, eta beste hiru Bilbon: bi Indautxuko jesuiten ikastetxean, jesuita-formakuntza barruan eskolak ematen, eta urtebete Teologiako Fakultatean, Teologia ikasten. Hamar urteren ondoren,

1970ean, Jesusen Lagundian dimisioa eskatzea erabaki zuen; Erromara eskatu behar izaten zen.

Jesuitetatik irtenda lehenbailehen soldadutza egin nahi zuen, baina, 1970eko azaroan Erromako postariak egin zuten grebaren ondorioz, dimisioa ez zen garaiz iritsi soldadutzako zozketan sartzeko, eta beste urtebetean egon behar izan zuen zain. Urte horretan lanean aritu zen, furgoneta handi batekin banaketa-lanetan aurrena eta Deus-tuko Mensajero argitaletxean gero. Garai hartan hasi zen *Zeruko Argian* artikulua idazten ere. Soldadutza bukatu zuenean, 30 urte betetzear zegoen, eta argitaletxean jarraitu zuen lanean.

Sestaoko patronatuak irakasle lana eskaini zion, 1973ko irailean, Portugaleten eraikitzen ari ziren Asti Leku ikastolarako irakasle euskaldunak behar baitzituzten. Hamar urtez aritu zen eskolak ematen, aurrena Sestaon eta gero Portugaleten. Ortuellako heldu talde bati euskara irakasten ere aritu zen, musu-truk, garai hartan Ezkerraldean euskarazko irakasle askorik ez zegoen eta.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsera joan zen 1975eko irailean, Jesusen Lagundian egindako ikasketak baliozkotzeko azterketa egitera, Elizak emandako tituluek bertan aritzeko bai baina kanpoan eskolak emateko ez baitzuten balio, baina, frankismoaren azken fusilamenduak zirela eta (Jon Paredes *Txiki* eta Angel Otaegirenak, besteak beste), irakasleek greba egin zuten, eta berriro urtebetez itxaron behar izan zuen azterketa egin eta titulua eskuratzeko. Berriro ere greba baten ondorioz geroratu behar izan zituen planak.

Liburu bat argitaratu zuen 1972an, Etor argitaletxean: *Giza zirriborroa* (bere buruari hartaz eta honetaz galde eta galde ari zaion gazte kezkatu baten galde-erantzunen bilduma). Geroago, 1977an, Herman Melvilleren *Moby Dick* abenturazko eleberria euskaratu zuen. Irakurketa errazeko Kimu izeneko sailean argitaratu zen, Gero-Mensajero argitaletxean; ez zen Melvilleren itzulpen oso bat, testu aukeratua eta laburtua baizik, baina liburu praktikoa zen, oin-oharretan, grafikoko batean eta amaierako hiztegi batean itsasontziaren atalak izendatzeko hainbat termino azaltzen baitzituen.

Ikastola utzi, eta Administrazioan hasi zen lanean, 1984an, IVAPen, Oñatin aurrena eta Gasteizen gero. IVAPen ziharduen Administrazio Lanerako Itzulpen Eskola (ALAI) sortu zutenean, 1986an, eta baita Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala (IZO) abiatu zenean ere. Harrezkero IZOn aritu zen lanean, harik eta 2008an erretiroa hartu zuen arte. ALAIEn irakasle aritu zen, eta, IVAPen ordezkari gisa, itzulpen alorreko Euskadi Literatura Sarien epaimahaikide izan zen, 1989. urtean.

Administrazio-itzulpenean hasi zenean, Batxilergoan latinetik gaztelaniara egindako itzulpenen esperientzia zuen; eta gaztelanitik euskarara itzultzeko erabiltzen zuen irizpidea omen zen, berak zioenez, alde batean zegoena bestean egotea, gezurrik esan gabe: gaztelaniaz edo euskaraz irakurri, bietan gauza bera uler zedila.

Nekazaritza hiztegia lantzeko batzordea osatu zuten hainbat erakunderen artean, 1993an, eta batzorde horretako kide izateko euskarari zegokionez prestakuntza sakona edukitzea edo landu nahi zen gaian aditua

izatea eskatu zitzaizen parte hartu zuten erakundeetara. Kaxildo izan zen IVAPeko ordezkaria lantaldean. UZEIri egokitu zitzaion hiztegia lantzeko ardura, eta, 1993ko urritik 1995eko maiatzera batzordeak bi edo hiru asterik behin bilerak egin ondoren, 1995eko urrian argitaratu zen *Nekazaritza hiztegia*. Ondoren, lan ildo berari jarraituz, *Txirindularitza: kirol hiztegia* (1996) eta *Arrantza hiztegia* (1998) etorri ziren. Epaitegietako inprimaki-ereduak lantzeko lantaldean ere ibili zen urteetan.

Nik IZOn izan nuen lankide, 1992ko abendutik 2004ko irailera eta 2007ko irailetik erretiroa hartu zuen arte, 2008ko martxora arte alegia. Ezagutzen nuen lehenagotik ere, lanpostu-deialdi baterako aurkeztu nintzenez berak egin baitzidan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ahozko azterketa, baina lankide bihurtu ginenean izan genuen elkar ezagutzeko eta lagun egiteko aukera. Kaxildok lankide izan gintuen guztioi utzi zigun arrastoa, gizon jantzia bezain apala eta langile fina izateaz gain bazekielako lagunarte goxoa sortzen ere. Ondo gogoan ditugu lantokian antolatzen zituen hamaketakoak eta santomasetako txistor-janak, nahiz lantokitik kanpoko mendi-irteerak, bazkariak edo sardina-janak. Marmitakotxapelketetan parte hartzea ere gustatzen zitzaion.

Erretiroa hartu zuenean, lankide batek *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian (59. alea, 2008) idatzi zuen Kaxildok itzulpengintzatik hizkuntza-normalizaziora egindako ekarpena handia zela, IZOk asko galduko zuela Kaxildo gabe, dudarik ez, baina asko irabaziko zutela, besteak beste, Mendebalde Kultura Alkarteak, Jagon Sai-

lak, Getariak, Aulestik, Portugaletek... Ez zitzaion arrazoirik falta.

Euskal hizkuntzaz bere osotasunean eta bereziki euskara batuari Euskal Herriko mendebaldeko euskarak eskain diezaiokeen ondarea ikertzea eta bultzatzea xede dituen Mendebalde Kultura Alkarteko kide zen 1998az geroztik, eta 2010ean lehendakari izendatu zuten. Lehendakari zela elkarteak Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma jaso zuen, 2012an, mendebaldeko hizkeraren eta euskararen alde egindako lanagatik. Kaxildok egindako ekarpenak irakur daitezke Mendebalde Kultura Alkarteak antolatzen zituen jardunaldiei buruz argitaratutako liburuetan.

Euskaltzaindiaren Jagon Sailean euskalkien lantaldean jarduten zuen 2001az geroztik; 2013an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak, eta euskalkien lantaldean hartu zuen parte. Kaxildok zioen Euskaltzaindian sartu egin zutela, hain zuzen ere Mendebalde Kultura Alkartean zebilelako eta Euskaltzaindiak hiztegi bat egin nahi zuelako erabiltzen ziren baina jaso gabe zeuden hitzekin. Falta ziren bizkaierazko hitzen zerrenda egiteko eskatu zioten. Urteetan aritu zen lantaldean.

Portugaleteko Elai Alai Kultur Elkar-teak 50 urte bete zituenean, 2012an, Juan de Pagoetak idatzitako urteurreneko liburua itzuli zuen Kaxildok, eta ele bitan argitaratu zen. Portugaleten urte asko egin zituen, baina azken urteetan Bilbon bizi izan zen. Sarri joaten zen Getariara. Azkenekoz Getarian ikusi nuen, ustekabean topo eginda, pandemia heldu baino hilabete batzuk lehenago.

IZOn zuen eguneroko lanari buruzkoak 2004an EIZIEk eta IZOk, elkarlanean, zu-

zenketaren gainean antolatu zituzten jardunaldietan azaldu zituen (*Senez* 27, 2004):

Administrazioa arrautza asko berotzen dituen oilo loka da: gaiak, arlo guztietakoak eta era guztietakoak dira. [...] Askotan opilgintza industrialeko pastelak bezalakoak edo sukaldaritza industrialean prestatutako jatekoak bezalakoak izango dira itzulpenak, pastelero finaren gustua, etxeokondearen sukaldeko goxotasun hura faltako zaie; eta ez da maila txarra hala eta gutziz ere (non eta, jaterakoan, krematan botoiren bat edo intxaur azalen bat azaltzen ez zaigun).

Solasaldi atseginak eskaintzen zizkigun; oso gogokoa zuen pasadizoak kontatzea. Erretiroa hartu zuenean, EIZIERi dedikatutako pasadizo bat idatzi zuen: «Babeletik EIZIERa Mendekostetik pasata» (*Senez* 35, 2008). Bertan, itzulpengintzarekin lotura duten bi pasadizo kontatzen dizkigu: Itun Zaharrekoa bata eta Itun Berrikoa bestea.

Pasadizoen bilduma oparoa *Administrazioa Euskaraz* aldizkarietan utzi digu. Horrietako batean (II. alea, 1996ko urtarrila), San Bizente euskal itzultzaileon zaindari izatea erreibindikatzen zuen, San Jeronimori berea kendu gabe, San Bizente Huesca aldean latinezkoak euskaraz azaltzen ibili omen zelako.

Familiakoek ondo dioten modura, Kaxildo ez zen hemengoa edo hangoa; erakunde guztietatik pasatutakoa zen, formakuntza handikoa, leku askotan ibilitakoa, denekin ondo moldatzen zena eta sormen handikoa. Abizenik ere ez zuen behar; izena esate hutsa nahikoa zen nortaz ari ginen jakiteko. Bera Kaxildo zen. Eta beti izango dugu bihotzean.

Maite Imaz

Josemari Navascués Baskaran (1960-2022)

Ez da erraza adiskide baten hil izanaz idaztea. Batez ere, azken batean, alde, bizirik geratu direnez ere idaztea dakarrelako lan-tegi zail horrek, ez bairik gabe, eta gauza da, benetan, joan zaigunaz aritzea, ez norberaren gainean. Gure arteko urte alde txikia izan arren, haren anaia nagusitzat ninduen Josemarik, inoiz izan ez zuen haragizko anaia nagusitzat, eta, zertan esanik ez, nik esker onez onartu nion senidetzea; zelan uko egin, barren, borondatez bere burua anaiatzat eskainitako pertsona bizitasunez bete bat onartzeari?

Hark utzitako hutsunea handiagoa da gomutara ekarriz gero gaixo-gaixo egon izan zenetan ere beti izaten zuela mingain edo teklatu puntan Ondarroako berbetan esaniko edo idatziriko txiste edo pasadizoren bat. Bestalde, esker onez gogoratzen dut elkar ezagutu genuen garaia; azken batean, berak abiarazi ninduen itzulpengintza profesionalaren bidetik, eskuzabal eskaini baitzizkidan aurreneko itzulpen lan ordainduak, informatikaren eta ikasmaterialen inguruak.

Euskara irakasle eta itzultzaile jardun zuen Josemarik, batez ere, eta, itzultzeari dagokionez, informatikaren «historiaurrean» berehala ordenagailuz lagunduta behargin-

tzan hasi izanari esker, etxetik lan egin zuen beti. Laurogeiko hamarkadan, euskarazko eskolak emateari utzi zion, eta bete-betean itzultzeari ekin.

Izugarri maite zuen herri hizkera, eta hizkuntzalaritza jakinduria handikoa zen, Euskal Filologia amaitu ez bazuen ere. Esan bezala, informatika programak itzultzen ez ezik, halakoak sortzen ere jardun zuen; adibidez, hezkuntzarako softwarea, besteak beste euskara ordenagailuz lagunduta ikas-terko *Maisua* programa. Literaturaren arloan, batik bat gazteentzako liburuak itzuli zituen; halaber, Ánxel Foleren *Kriseiluaren argipean* ipuin sorta ere euskaratu zuen, Literatura Unibertsala bilduman. Literatura itzultzeaz gain, Josemari Navascuésen itzulpengintzarik oparoena EIMArako ikasmaterialetan aurkituko dugu, itzulpen mota hori, gizartean hain ezaguna izan ez arren, funtseko zutabe baita irakaskuntzan nahiz euskararen normalizazioan. Literatura sortzeari gagozkiola, zenbait poema eta ipuin argitaragabe utzi ditu idatzita.

Hark itzulitako ipuin bat dakargu orriotara, haren omenez: «Otsoak», Ánxel Foleren *Kriseiluaren argipean* lanetik aterea.

Sit tibi terra levis.

Karlos del Olmo

Ánxel Fole: «Os lobos» (*Á lus do candil*, 1952)

Moitas veces ouvín decir que os lobos non atacan ás persoas. E isto non é certo. O segredario de Caldas foi comido por iles cando voltaba da feira de Viana. Algús dixeron que o mataran por arroubalo, e que despois o comeran os lobos; mais a douscentos metros de ondia o comeran foi atopado un lobo morto coa gorxa afurriada por unha bala.

Aquiles días viran os pastores unha manada de dez cunha loba con tres lobecos. Era tempo de neve, e baixaran da serra da Moá. Ó parecer, despois de esgotados os cartuchos, quixo subirse a un albre, mais non puido. Alí estaba ó seu carón, o revólver con seis cartuchos baleiros no lombo. Era un bon revólver americano. Ó sentirse feridos algús lobos, todos se botaron enriba dil. Si tivera un bon foco elétrico ceais se salvara. Ós lobos se non se lles fire de morte é pior. Eu matei un con dous tiros de postas. Foi morrer tres cantos máis aló de ondia o asegurara. Atínálle na testa e no fuciño, e iba deixando un regueiro de sangue. Arrincaba cos dentes os cañotos das xestas. Ceais non se me arrepuxo porque era de día.

De noite médralles o corazón e son moi valentes. Non vos riades. Tamén lles pasa iso ós lubicás. O señor cura de Peites tiña un. De noite íbase ó monte e chamaba ós lobos. Viñan con il. Din que abría os tarabelos das cuabras coma unha persoa. Unha noite velouno o señor cura. Era un gran cazador. Tiña un rifle de dez tiros que lle trouguera un sobriño de California. Meteu-

Ánxel Fole: «Otsoak» (*Kriseiluaren argipean*, 2010)

Askotan entzun izan dut esaten otsoek ez dietela pertsoneri erasotzen. Eta hori ez da egia. Caldaseko idazkaria otsoek jan zuten, Vianako azokatik bueltan zetorrela. Batzuen esantán, lapurtzeko hil zuten, eta gero jan zuten otsoek, baina, jan zuten lekutik berrehun metroa, otso bat aurkitu zuten hilda, zintzurra bala batez zulatuta.

Egun haietan, artzainek hamar otso taldea ikusi zuten, otso eme batekin eta hiru otsokumerekin. Elur sasoia zen, eta Moa mendizerratik jaitsiak ziren. Dirudienez, kartutxoak ahitu zitzaizkionean, zuhaitz batera igo nahi izan zuen, baina ezin izan zuen. Han zegoen, errebolbera bere alboan, danborrean sei kartutxo hutsekin. Errebolber amerikar ona zen. Hainbat otso zaurituta sentitu zen nonbait eta denek gainera egin zioten salto. Linterna elektriko on bat izan balu, agian, salbatu egingo zen. Otsoa zauritu eta hiltzen ez baduzu, okerragoa izaten da. Nik bat hil nuen posta-kartutxoekin bi tiro emanda. Bigarren tiroaz errematatu nuen lekutik hiru besabete aurrerago hil zen. Buruan eta muturrean eman nion eta odol-arrastoa uzten joan zen. Hortzekin isats landareen zurtoinak erauzten zituen. Egun-argia zelako ez zidan aurre egin. Gauez, otsoen bihotza handiagotu egiten da eta ausartagoak dira. Ez barre egin. Otso-txakurrei ere gauza bera gertatzen zaie. Peiteseko apaiz jaunak bat zeukan. Gauean, otso-txakurra mendira joan eta otsoei deitzen zien. Harekin etortzen ziren. Kortetako kisetak pertsona batek bezala irekitzen omen zituen. Gau batean apaiza zelatan geratu zitzaion. Oso ehiztari ona zen apaiza. Hamar tiroko erriflea zeukan, iloba batek Kaliforniatik ekarritakoa. Bi tiro eman zitzaion elkarren segidan bi begien artean, pasabidea igarotze-

lle dous tiros seguidos no entrecello ó galgar un pasadelo. O crego estaba na xanela da reitoral cun foco, i o lubicán voltaba do monte, polas tres da mañá, acompañado dos lobos. Abrírono i esfolárono axiña, e viron que tiña o corazón finchado...

¿Sabedes cando se estreven os lobos cos homes? Cando teñen moita fame, ou cando se decatan de que lles teñen medo. Por iso cáseque nunca atacan a tres ou máis xuntos. Cando se atopan un home soio pola serra, pónense a traballalo. Teñen moito *distinto*... Xa veredes coma o traballan. De primeiro, acompañano; despois, pónenselle diante; máis tarde, chéganlle a zorregalas pernas cos rabos... Así, pouquiño a pouquiño. Vén un intre en que o home xa non pode máis. O medo alporízalle os cabelos. Parécelle que lle cravaran allambres na testa. Váiselle a voz, perde o sentido. Xa está perdido. Bótanse os lobos enriba dil i esnaquízano. Cada vinte anos ou menos, dáse por istas terras un caso dises. Desaparece un home. Crese que o mataron ou que fuxiu prás Américas. Ó cabo de dous ou tres anos ninguén fala dil. Un cazador atopa nunha xesteira unha calivera. ¿De que sería? Así lle aconteceu ó *Pastrán* de Vesuña fai moitos anos. Mais si o home non perde o coraxe non se atreven coíl.

Todos coñecedes coma min ó Emilio, o castrador de Rugando. Atendede ben e xa sabereis que é certo todo canto levo dito encol dos lobos. E vostedes tamén, señoritos...

Non habería rapaz coma il se non fora tan xogantín. Xogaba hastra a camisa. Unha vez, na cantina da Cruz, xogou a besta con tódolos arreos, e perdeuna. Tivo que andar

ko jauzia egin zuenean. Abadea apaiz etxeke leihoan zegoen linternarekin eta otso-txakurra menditik behera zetorren goizeko hirurretan, otsoekin batera. Otso-txakurra berehala goitik behera ireki eta larrutu zutenean, bihoztza handituta zuela ikusi zuten...

Badakizue noiz ausartzen diren otsoak gizakiei aurre egiten? Oso gose direnean edota haien beldur direla konturatzan direnean. Horregatik ia inoiz ez dute erasotzen hiru lagun edo gehiago elkarrekin doazenean. Mendingo bakarrik dabilen gizonarekin topo egiten dutenean, hura lantzen hasten dira. Sen handia dute... Ikusiko duzue nola lantzen duten. Lehenbizi gizonari laguntzen joan ohi dira; ondoren, aurrean jartzen zaizkio; geroago, hankak astintzen dizkiote buztanekin... Halaxe, astiro-astiro. Une jakin batean gizonak, dagoeneko, ezin du gehiago. Belduraren beldurrez ilea tente jartzen zaio. Buruan alanbreak sartzen dizkiotela iruditzen zaio. Ahotsa galdu eta konortea galtzen du. Break egin du. Otsoak gainera salto egiten diote eta txikitu egiten dute. Hoge urterik behin, edo tarte txikiagoan, gertatzen da lurralde honestan horrelako kasuren bat. Gizon bat galdu egiten da. Jendeak hilda dagoela edo Ameriketara joan dela pentsatu ohi du. Handik bi edo hiru urtera, inork ez du gehiago hartaz hitz egiten. Ehiztariren batek burezur bat aurkitzen du isasti batean. Norena ote da? Horixe gertatu zitzaion Vesuña *Ugerdori* orain dela urte asko. Hala ere, gizonak adorea galtzen ez badu, otsoak ez dira harekin ausartzen.

Denok ezagutzen duzue, neuk bezala, Emilio, Rugandoko zikiratzailea. Entzun arretaz eta jakingo duzue otsoei buruz esan dudan guztia egi dela. Eta zuek ere bai, jaun gazteak...

Gazte honek ez luke parerik, hain jokalaria ez balitz. Gauza zen baita galtzak jokatzeke

a pé castrando ranchos dende Leixazós a Pacios, ou de Bustelo a Vilañán. Era home moi botado para diante, i o primeiro nas liortas.

Se non me trabuco, fora pola Santa Lucía cando lle aconteceu o que vos vou contar. Por ise tempo todos sabedes que non traballan os capadores. O bon do home adicábase á farra. Faguía pouco que se casara cunha moza de casa forte. Xa estaba en pratos cun xateiro da Hermida pra mercar un cabalo.

Queríanlo moito en tódolos sitios onde capaba ranchos, e convidábano sempre á mata. Aquil día xantara en Arnado. Xa se sabe coma son ises xantares da mata. Empezan ás doce, poño por caso, e rematan ás cinco. O fígado asado con aceite e pimento, os roxós i o raxo. Viño, nunca falta. Tempo de fartura. Xantara aquil día en cas do *Rulo*. Enchéranse de néboa os cavorcos. Non se vía un burro a tres pasos, dispensando...

O *Rulo* díxolle que pasara a noite na súa casa.

—Andan os lobos —adevertiulle— moi bastos. Con ista néboa tan mesta pódeste esfragar. Non che pase coma o Bieito da Corga cando iba pra Ferramolín, que se derrubou polo canto do Mazo e foi dar ó río. Alí quedou difunto cos cuadrís partidos por testalán, pois teimou coma ti por saír de Vilarbacú unha noite coma a de hoxe.

Mais o capador faguía pouco que se casara, coma vos dixen, e non houbo xeito de faguelo quedar. Nin tan siquera quixo levar algús fachucos de palla pra o camiño. E alá se foi o Rugando tan soio cunha cachaba de freixo i a súa navalla no peto pra se defendere. Gracias a Dios que coñecía ben o

ere. Behin, Cruzeko tabernan, mandoa jokatú zuen uhaleria eta guzti, eta galdu egin zuen. Oinez ibili behar izan zuen txerriak zikiratzen, Leixazosetik Pacioseraino eta Bustelotik Vilañaneraino. Gizon ausartegia zen eta bera zen lehena liskarretan.

Oker ez banabil, Santa Luzia aldera izango zen, kontatuko dizuedana gertatu zitzaionean. Sasoi horretan, denok dakizuenez, zikiratzaileek ez dute lanik egiten. Parrandan ibiltzen zen orduan. Ezkondu berria zen, etxe oneko neska batekin. Ermidako ganaduzale batekin tratuan zebilen, zaldia erosteko.

Jendeak maite zuen txerriak zikiratzen zituen toki guztietan eta beti gonbidatzen zuten txerri-hiltzera. Egun hartan Arnadon bazkaldu zuen. Badakizue nolakoak diren txerri-hiltzetako bazkari horiek. Eguerdiko hamabietan hasten dira, esate baterako, eta arratsaldeko bostak arte ez dira amaitzen. Gibel errea olio eta piperrarekin, txintxortak eta solomoa. Ardoa ez da inoiz falta. Betekadasoia. Egun hartan *Ruloren* etxean bazkaldu zuen. Lainoz bete ziren sakanak. Barkatu hola esateagatik, baina ez zen asto bat ikusten gainean edukita ere.

Gaezan bere etxean gelditzeko esan zion Rulok.

—Otso ugari dabilta —ohartarazi zuen—. Halako laino zarratuarekin amildu egin zaitzke. Ez zaizula pasa Corgako Bieitori pasatu zitzaiona, Ferramoliner a zihoanean; alegia, Mazoko sakanean behera amiltzea, beheko ibairaino. Han geratu zen hilda, gerria hautsita, burugogorra izateagatik, zeren Vilabarcutik irtetea sartu baitzitzaion buruan, gaurkoa bezalako gau batean.

Baina zikiratzailea aspaldi ez zela ezkondua zen, lehen esan dizuedanez, eta ezinezkoa izan zen geraraztea. Ez zuen lastozko zuzirik ere eramán nahi izan biderako. Eta han joan zen

camiño. Xa levo dito que era home valente. Il mesmo mo contou en Santa Cubicia de Quiroga, na tasca do Avelino.

Polas primeiras horas todo foi ben. Non viu amosas de lobos por ningures. Parouse a acender un pitelo inantes de chegar á lindeira da devesa de Bonxa. Mais de alí a un pouquichiño ouviu patuxar nun trollo. Xa sabedes que é un terreo fondal ondia se encora a iauga. Unha miaxiña dispois ouviu un longo aulido. I outro lle respondeu da outra banda da valgada. Tamén sentiu unhas carreiriñas polos dous lados do camiño. Os lobos seguían chamándose os uns ós outros. Por sorte pra il, había moitos seixos no camiño. Encheu tódolos petos de croios. Non me dixo que empezara a ter medo, mais eu coído que si...

Dous lobos grandismos fórono acompañando. Iban sempre de par dil, ás dúas maos. Cáseque parecían dous cas que foran con seu amo. Se il se paraba, tamén iles se paraban. Algunhas veces púñanselle diante. Entón, o capador guindáballes un coio. E batíalles. Os lobos desapartábanse. No máis fondal dunha congostra tivo que pasar un pontigo. Había esgotado as pedras que trouguera nos petos. Xa lle quedaban poucos fósforos. Do outro lado do pontigo viu unhas luces coma de vagalumes. Acendeu un fósforo. Non había pedras no camiño. Tivo que coller bulleiro coas maus e tirarllo ós lobos, ó mesmo tempo que berraba moi forte. Ergueuse un e deixouno pasar. Cecais foran seis. A todos lles relocían os ollos. Un diles botoulle os dentes á cachaba i arrincoulla da mao. Íbanse metendo nil cada vez máis. Hastra lle fustrigaban as pernas cos rabos. Acendeu, un tras outro, os tres fósforos que

Rugandora, lizar makila eta patrikan labana besterik ez zeramatzala bere burua babesteko. Eskerrak Jainkoari bidea ondo ezagutzen zuela. Lehen ere esan dut gizon ausarta zela. Berak kontatu zidan Santa Culicia de Quirogan, Avelinoren tabernan.

Lehenbiziko orduetan dena ondo joan zen. Ez zuen inon otsoen arrastorik ere ikusi. Zigarro bat piztera gelditu zen, Bonxako basoaren mugara iritsi baino lehen. Baina, handik gutxira, hanka-hotsak entzun zituen basatzen. Badakizue lur-eremu hura sakona dela, eta ura bertan gelditzen dela. Apur bat geroago ulu luzea entzun zuen. Eta hari beste ulu batek erantzun zion mendiartearen beste aldetik. Korrikaldiak ere aditu zituen bidearen bi aldeetan. Otsoek elkarri deika jarraitu zuten. Zorionez, harbidean harri-koskor asko zeuden. Poltsiko guztiak harriz bete zituen. Ez zidan esan izutzen hasi zenik, baina nik baietz uste dut...

Bi otso handi zituen bidelagun. Bere parean zihoazen ezker-eskuinera. Jabearekin zebiltzan bi txakur zirela ematen zuen. Bera gelditzen bazen, otsoak ere gelditu egiten ziren. Batzuetan aurrean jartzen zitzaizkion. Orduan, zikiratzaileak harrira egiten zien. Eta eman egiten zien... Otsoak apartatu egiten ziren. Trokartearen lekurik sakonenean zubia zeharkatu behar izan zuen. Poltsikoan zeramatzan harriak agortu zituen. Pospolo gutxi batzuk gelditzen zitzaizkion. Zubiaren beste aldean ipurtargien antzeko argiak ikusi zituen. Pospolo bat piztu zuen. Harbidean ez zegoen harririk. Lokatza eskuekin hartu behar izan zuen eta otsoei bota, aldi berean oihuka eginez. Otso bat altxatu egin zen eta gizonak pasatzen utzi zion. Sei bat izango ziren. Begiek distira egiten zieten denei. Otsoetako batek koska egin zion makilari, eta eskutik erauzi zion gizonari. Gero eta gehiago hurbil-

lle quedaban. Gracias a isto puido coller un coio. Atinoulle a un lobo no peito. Regañaban todos os dentes coma cando se van a botar sobor das ovellas. Xa sentía que se lle esmorecían os pulsos, que se iba quedando sen forcia. Os lobos seguían a chamarse us ós outros. Tremaba coma un vimbio. Xa non os podía escorrentar nin siquera berrar. Íballe a estoupar o corazón. Unhas cantas lancañadas máis e xa estaría na casa. ¿Podería dalas? De sutaque, viu tremelar unhas luces na tébrega; ladraban us cas ó lonxe. Meteu os dedos na boca i asubiou. Chamábano de lonxe. Estourou un tiro de escopeta.

—Anda *Rabelo*, anda *Sultán* ouviu que decían.

Diante il había tres fachucos de palla ardendo. Seus tres cuñados dábanlle fortes apertas.

—Andabámoste buscando —dixo un. Chegaron o *Sultán* i o *Rabelo* brincando ó seu redor e dando ouveos de ledicia.

Entraron na casa. As mulleres estaban na cociña. Na gran lareira había un bon lume.

—Traguédeme auga —dixo o capador.

E caíu estalicado no chan. Todos se alporizaron. Houbo moitos berros e prantos. Máis de dúas horas estivo sen sentido. Levárono ó leito. A forcia de fretasolveulle o acordo.

—Se non salírades a buscarme tan soio se me atoparían os ósos. Xa non podía resistir máis —dixo o bon do home.

Pra que vexades como traballan os lobos á xente.

tzen zitzaizkion. Buztanez gizonaren hankak jotzera iritsi ziren. Gelditzen zitzaizkion hiru pospoloak piztu zituen bata bestearen atzetik. Horri esker hartu ahal izan zuen harri bat. Paparrean eman zion otso bati. Hortz-hagin guztiak erakusten zituzten, ardiei erasotzerakoan egiten duten bezala. Pułtsua makaltzen, indarrak agortzen ari zitzaizkiola sentitu zuen. Otsoek elkarri deika jarraitzen zuten. Dardarka ari zen, zumea balitz bezala. Dagoeneko ezin zituen uxatu, eta oihuka ere ezin zuen egin. Bihotza lehertu behar zitzaion. Urrats batzuk gehiago eta etxera iritsiko zen. Egin ahal izango zituen urratsok? Bat-batean, argi batzuk ikusi zituen ilunetan dir-dir egiten; txakurrak zaunka ari ziren urrun. Atzamarrak ahoan sartu eta txistu egin zuen. Deika ari zitzaizkion urrutitik. Eskopeta-tiroaren distantziaren barruan zegoen.

—Ea *Rabelo*, ea *Sultan* —entzun zuen esaten.

Lastozko hiru zuzi zeuzkan aurrean sutan. Besarkada estuak ematen ari zitzaizkion hiru koinatuek.

—Zeure bila genbiltzan —esan zuen bateg.

Sultan eta Rabelo iritsi ziren, inguruan saltoka eta uluka, pozarren.

Etxean sartu ziren. Emakumeak sukaldean zeuden. Sutondoan su ederra zegoen.

—Ekarri ura —esan zuen zikiratzaileak. Eta lurrera erori zen luze bezain zabal.

Izutu egin ziren denak. Oihu eta negar ugari egon ziren. Ordu bi baino gehiago egon zen konorterik gabe. Ohera eraman zuten. Konortea igurzteen eraginez etorri zitzaion berriz.

—Nire bila atera ez bazinete, bihar ez ziren nire hezurak besterik geratuko. Ezin nuen gehiago —esan zuen gizonak.

Hori, otsoek jendea nola lantzen duten ikus dezazuen.

Resumen

Desde la publicación del número anterior de la revista hemos perdido a tres de nuestros socios: Iñaki Zubizarreta Mujika «Xubi», Kaxildo Alkorta Barrena y Josemari Navascués Baskaran. Vaya nuestro agradecimiento y homenaje a estos tres socios que tanto amaron y dignificaron nuestra profesión.

Résumé

Trois membres nous ont quittés depuis la publication du dernier numéro : Iñaki Zubizarreta Mujika «Xubi», Kaxildo Alkorta et Josemari Navascués Baskaran. Nous leur rendons ici hommage et les remercions pour avoir aimé et rendu digne notre profession.

Abstract

Three members have passed on since we published last year's issue: Iñaki Zubizarreta Mujika ("Xubi"), Kaxildo Alkorta and Josemari Navascués Baskaran. We offer our heartfelt gratitude and respect to these three members, who loved and dignified our profession.